

**IKASTARO ESPEZIALIZATUA
TOKIKO GIZA GARAPENA**

IRAKASKUNTZAKO GIDA

IRAKASGAIA

Tokiko giza garapenaren esparru teorikoa eta metodologikoa

Irakaslea: Alfonso Dubois



Alfonso Dubois Migoya

Nazioarteko Ekonomia eta Garapenerako Ekonomiako irakaslea naiz, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Bilboko Fakultatean. Nire lan-esperientzia garapenerako lankidetzari lotuta egon da aspaldidanik, hogeita hamar urtetik gora eman

ditut arlo horretan. Urte batzuk eman nituen lanean Latinoamerikan (Bolivian eta Nikaraguan), eta 1990etik aurrera Bilbo izan da nire plataforma. Hemen, beti egon naiz Hegoa Institutuari eta UPV/EHUri lotuta.

SARRERA

Ikastaroaren lehen irakasgaia da, eta horrek esan nahi du gainerako guztien sarrera eta erreferentzia orokorra dela. Bere edukia oso metodologikoa da. Honen bidez, tresna egokiak eskaini nahi ditugu, tokiko giza garapena zer den ulertu, eta errealitatea aldatzeko eragina izan dezaketen politikak diseinatu ahal izateko, horrela, giza garapeneko helburuak lortzearren.

Esparru teorikoa eta metodologikoa prestatzea funtsezko kontua da garapenaren ikuspegi alternatiboa lantzeko. Errealitatea giza garapenaren ikuspegitik ulertzeko eta bertan esku hartzeko kategoriarik eta tresnarik ez badugu, ezinezkoa izango da eraikitze-lanarekin aurrera egitea. Hauxe da aurrean dugun erronka: errealitatea ulertzeko, eta bertan esku hartu eta aldaketa-prozesuak sortzeko behar diren osagaiak zehaztea eta azaltzea.

Ikastaroaren helburu nagusia esku hartzeko estrategien kalitatea hobetzea da, eta, ildo horretan, prestakuntzako tresna izan nahi du tokiko eragileentzat eta nazioarteko lankidetzaren arloetan garapen bidezkoagoa lortzeko lanean aritzen diren horientzat.

Ez dugu pentsatu behar metodologiarekin lan egitea prozesu abstraktu bat denik. Aitzitik, metodologiak ezinbestez aipatu behar du testuingurua, bere zeregina hauxe baita: pertsonak eta erakundeak gaitasun gehiago izan dezaten errealitateak ekartzen dituen arazoei erantzuna emateko. Hortaz, metodologia errealitateak aurkezten dizkigun arazoez hornitzen da, eta aurre egiten die arazo horiei. Oinarrizko kontua da garapenaren ikuspegi alternatiboa landu ahal izateko. Ezinbestekoa da errealitatea ondo ulertzea, eta tresna egokiak izatea bertan esku hartzeko. Ildo horretan, hauxe da egin behar dugun galdera nagusia eta aurrean dugun erronkarik handiena: balio al du metodologiak hori ulertzeko?

Proposamen honetan marka utzi duten bi erreferentzia nabarmendu nahi ditugu:

1. Lehenengoa da alderdi normatiboaren garrantzia azpimarratzen dela. Horren ondorioz:

i) metodologiak, gertatzen dena ulertu nahi izateaz gain, ikuspegi jakin batetik egin nahi du irakurketa hori, bere ustez jendarteak izan beharko lukeena kontuan izanda;

ii) tresnak eskaini nahi ditu, aldaketa norabide zehatz batetik bideratzeko.

Ezin da metodologiaz eztabaidatu, alderdi normatibo horretatik abiatu gabe. Eta gure proposamen normatiboaren oinarria gaitasunen ikuspegia da, giza garapenaren ikuspegiaren oinarri teorikoa ere badena.

2. Metodologiak harantz jo, eta proposamen zehatzak egin behar ditu, proposamen eraginkorrak. Egiaz hautabide bat izan nahi badugu, diseinua ez da logika arrazionalera mugatu behar. Oinarriak eskaini behar ditu, konbentzitzeko, erakartzeko, eta motibazioa eta ilusioa pizteko gaitasuna izango duen diskurtsoa prestatzeko.

HELBURUAK

Tokiko giza garapenaren ikuspegiak dituen oinarri teorikoak zein diren jakin nahi dugu, aztertzeke eta esku hartzeke tresna bilakatzeko, eta, horrela, garapenerako estrategia integralak edo sektorialak gauzatu ahal izateko. Ikastaroaren ondoz ondoko moduluetan argi azalduko da bilakaera hori.

Bereziki nabarmentzen dugu gaitasunak garatzeko prozesua tresna nagusia dela, eta oso garrantzitsua dela ongizatearen alderdi kolektiboak aztertzeke.

EDUKIAK

Programa bost (5) ikasgaitan egituratuta dago. Jarraian, labur aurkeztuko ditugu haien edukiak. Hasteko, esparru teoriko eta metodologikoaren proposamena egungo testuinguruan kokatuko dugu, errealitatearekiko lotura eten ordez, egoera berriak ekartzen dituen erronkei erantzuna eman ahal izateko.

Tokiko giza garapenaren ikuspegia, izenak argitzen duenez, oso normatiboa da, eta giza garapenaren ikuspegia du oinarrian. Horregatik, hurrengo bi gaietan, alde batetik, gaitasunen ikuspegiaren oinarri teorikoak aztertuko ditugu, eta, bestetik, haien ondoriozko ongizatearen kontzeptua landuko dugu. Definizio honek bereziki nabarmentzen du alderdi kolektibo edo sozialaren garrantzia, horixe baita ikuspegiaren funtsezko ezaugarria.

Aurreko ikuspegiak guztiz alferrikakoak izango dira, argi erakusten ez badute ahalmena dutela errealitatean lan egin ahal izateko tresna eraginkorrak garatzeko. Gaitasunak garatzeko prozesua tresna egokia da, aukera ematen duelako aurreko oinarri teorikoak zabaltzeko.

Azkenik, azterketa-esparrua aurkeztuko dugu, tokiko jendartearen errealitatea aztertzeke jarraibide gisa erabili ahal izateko.

1. Gaia. Garapenari buruzko eztabaidaren egungo testuingurua. Aldaketa lortzeko prozesuak identifikatu nahi ditugu, egoera berrian lortu nahi dugun eta benetan lor daitekeen etorkizunaz hausnarketa egiteko. Horiei buruz egiten den diagnostikoa nolakoa den, erantzunak desberdinak izango dira. Zehatz aztertu nahi dugu zein diren nagusi den ereduaren ikuspegi alternatiboz gogoeta egiteko aukera ematen duten inguruabarrak. Ondo kontuan hartuko dugu alderdi normatiboa garapenari buruzko eztabaidan sartu behar dela, eta argi bereizi behar direla modu partzialean egiten diren ongizate kontzeptuaren berrazterketak eta eduki alternatiboak dituzten horiek.

2. Gaia. Giza garapenaren ikuspegiaren oinarri teorikoak. Giza garapena lortzeko oinarri teorikoak aztertuko ditugu, ekonomiaren funtsezko arazo bati guztiz desberdina den erantzun bat emateko: pertsonak era egokian bizitzeko helburua ebaluatzeko irizpideak. Horretarako, funtsezko bi ekarpen hauek aztertuko ditugu: a) Lehenik, Sen-en gaitasunen ikuspegia: funtzionamenduen eta gaitasunen kontzeptu gakoak azaltzen ditu; b) Bigarrenik,

Nussbaumen ekarpenak: aurreko kontzeptuak berrikusi, eta proposamen bat eskaintzen du giza gaitasun nagusiak zein diren azaltzeko, oso interesgarria erreferentzia gisa.

3. Gaia. Ongizatea eta giza garapena. Ongizate kontzeptuaren definizioa landuko dugu, azalpen teorikoak pixkanaka zehaztu, eta giza garapenaren ikuspegia eraginkorra izan dadin lortzeko. Kontua da galdera hauei erantzutea: Nola planteatzen da gaitasunen ikuspegitik zer den “ondo izatea”? Zein da bizitzea merezi duen bizitza?

Horretarako, bi atal hauek azalduko ditugu: a) Gaitasunen ikuspegitik egindako ongizatearen erreferentziak; b) UNDPk egindako giza garapenaren proposamena. Ongizatearen proposamen alternatiboan, ongizateak duen alderdi kolektiboa edo soziala nabarmentzen da bereziki, bera osatzen duen zatitzat hartzen delako. Alderdi kolektibo hori zehazteko lagungarriak diren kategoria batzuk aztertuko ditugu, esate baterako, ondasun publikoak edo kapital soziala. Horrez gain, giza garapenaren kontzeptuak UNDPren txostenetan izan duen bilakaera ikertuko dugu, horren ondorioz onartu baitu alderdi kolektibo hori. Ildo horretan, garrantzi berezia hartzen du giza segurtasunaren proposamena.

4. Gaian, irakasgaiaren eta, oro har, ikastaro osoaren kontu funtsezko bati ekingo diogu: **Gaitasunak garatzeko prozesuari.** Giza garapenaren ikuspegiaren barruan, gaitasunak garatzeko prozesua (GG) da ongizatea aztertzeko eta gauzatzeko erabiltzen den tresna teorikoa eta politikoa, alde indibiduala eta kolektiboa barne hartzen dituelako. Lehenik eta behin, GG prozesuak zeri egiten dion erreferentzia zehaztuko dugu, horri buruzko ikuskera batzuk estuagoak direlako. Gai honetan, alderdi kolektiboa hartuko dugu ardatz gisa, eta, horretarako, instituzioen funtzionamenduaren berri izan behar dugu. Kontua da instituzioek dituzten aldaketa-prozesuak eta harreman jartzeko formak ulertzea, horixe baita garapenaren abentura nagusia. Hau da, jendarte batek aldatzeko eta bere instituzioek giza garapenarekin aurrera egiteko duten gaitasuna. Osagaiak aurkeztuko ditugu, gaitasunen garapena ongizatearen alderdi kolektiboaren eraikuntza gauzatzeko proposamenik egokiena dela ulertu eta ezarri ahal izateko.

Gaitasunen ikuspegitik GG prozesuak duen bereizgarri nagusia da alderdi normatiboa sartzen duela, instituzioak eta jendartearen funtzionamendu osoa ebaluatzeko.

Berritasun gisa, zehatz azalduko dugu nola aurre egin jendartearen, guztira, aztertzeko prozesuari, aldaketa proposatzeko eta etorkizuna zehazteko orduan. Autonomia eta konplexutasuna dira prozesu horretako bi osagai nagusi.

5. Gaia. Tokiko giza garapenaren esparrua. Gaiak bi helburu ditu. Alde batetik, tokiko arloa nola ulertu behar den argitu nahi du. Horretarako, espazio zehatz batean TGGren funtzionamendua ezagutzeak dituen ondorioak esparru kontzeptual eta analitiko batean azalduko ditugu. Espazioaz egiten dugun irakurketa ikuskera integral eta multidimentsional batetik egingo dugu, eta, bertan, lurraldearen kontzeptua ez da kontu geografiko huts bat. Esparru horretan, behar diren erreferentziak azalduko ditugu, jendartean aldaketa lortzeko izaten diren tokiko giza garapeneko prozesuak zehaztu eta erlazionatu ahal izateko.

Bigarren helburuari dagokionez, gaitasun kolektiboen azterketa praktikan nola gauzatu daitekeen argitu nahi dugu. Horrez gain, gaitasun nagusiak zehaztea eta haien edukirik ezartzea funtsezko zeregina da TGGren ikuspegiaren. Behin zehaztu ondoren, ezinbesteko tresnak izango dira tokiko giza garapeneko prozesuak aztertzeko.

MODULUAREN PROGRAMA

1. Gaia.- Garapenari buruzko eztabaidaren egungo testuingurua

1. Testuingurua: aldatzeko prozesuak.

2. Erantzunak: garapenaren kontzeptua berrikustea

Berrikusketaren alderdiak:

Alderdi normatiboa:

Berrikusketa partzialak

Berrikusketa alternatiboak

2. Gaia.- Giza garapenaren ikuspegiaren oinarri teorikoak

1. Oinarri teorikoak: Sen-en ekarpena eta bere eragina

2. Gaitasunen ikuspegiari buruzko eztabaida: Nussbaumen ekarpen teorikoak

2.1 Sen-en funtzionamendu eta gaitasunen kontzeptuen berrikusketa

2.2 Giza gaitasun nagusien proposamena

2.3 Gaitasunen ikuspegiaren alde kritikoak

3. Gaia.- Ongizatea eta giza garapena

1. Ongizatea gaitasunen ikuspegitik: ikuspegi zabala

Ongizate indibidualaren definizioa

Ongizatearen alderdi soziala edo kolektiboa

2. UNDP eta giza garapenaren paradigma

Garapenaren kontzeptu berria

Giza garapenaren kontzeptuaren bilakaera

4. Gaia.- Gaitasunak garatzeko prozesua.

1. Aurrekariak: lankidetza teknikitik gaitasunak garatzera (GG)

2. Gaitasunaren kontzeptua: instituzioen bat-etortzea gaitasunari eta gaitasunak garatzeari buruz

3. GG prozesua giza garapenaren ikuspegitik

4. GGren oinarriak

5. Sistemaren gaitasuna: kategoria berrien beharra

5.1 Konplexutasuna eta garapena

5. Gaia.- Tokiko giza garapenaren esparrua

1. Tokiko garapenerako proposamen zabalak

2. Tokiko giza garapenaren ikuspegia (TGG)

Esparruaren ezaugarri orokorrak

Kategoria nagusiak

3. Ongizatearen emaitzak

4. Gaitasun kolektiboak

LAN METODOA

Modulua bereziki prestatuta dago ikastaro baten oinarri gisa erabili nahi duten horientzat, egokitu ahal izan dezaten. Ez da proposamen zurrun baten moduan hartu behar. Aitzitik, aldaketak eta ekarpenak egiteko aukera ematen duen plataforma izan behar du.

Oso egitura soila du: oinarrizko dokumentua edo testua, eta iradokizun bat, ariketak eta irakurketak egiteko. Oinarrizko dokumentua edo testua ikastaroaren atal nagusia da. Modu berezian prestatu dugu, bertan sartzen diren pertsonak ikuskera sintetikoa eta zehatza izan dezaten gai nagusiei buruz. Gainera, moduluko ikasgai bakoitzak irakurgai nagusiak eskaintzen ditu, eta bigarren mailako irakurgaien proposamena ere bai. Irakurgai nagusiak, bistan denez, beharrezkoak dira testua edo oinarrizko dokumentua betetzeko. Bigarren mailakoak, berriz, proposamenak dira, kontzeptu batzuk sakonago ikusteko edo, besterik gabe, iradokizun gisa kontuan izateko.

Aurrekoari jarraiki, hau izango da erabiliko dugun dinamika:

1. Ikasgai bakoitzaren oinarrizko dokumentua edo testua azaltzea eta irakurtzea –ikastaroa aurrez aurrekoa den edo ez kontuan izanda–.
2. Kasu bakoitzean proposatzen diren ariketak egitea eta irakurgaiak irakurtzea.

NAHITAEZKO IRAKURKETAK / JARDUERAK

1. Gaian

Sarrera orokor gisa, bideo hau ikustea gomendatzen dugu (30'): <http://multimedia.hegoa.ehu.es/es/videos/32>. Bertan, Alfonso Duboisek esparru teoriko eta metodologikoaren aurkezpena egiten du Tokiko Giza Garapenaren Mintegian (Bilbo, 2013ko azaroa).

Testuingurua: aldatzeko prozesuak

- Irakurri zerrendan agertzen diren dokumentuak (seinalatutako orriak bakarrik)

- a) ONU DESA *Estudio Económico y Social Mundial 2010*; laburpena, 1-6 or. Hemen: http://www.un.org/es/mdg/summit2010/pdf/overview_sp.pdf
- b) ALONSO, José Antonio (2012); *Revisión de las teorías del desarrollo*, CIDOB

- Un mundo en cambio, 51-58 or.
- c) CUERVO; *Teoría del desarrollo* 21.0; CEPAL 2011
<http://www.cebem.org/publicaciones.php?seccion=65&ID=2216>
Filogénesis de la idea de desarrollo, 4-15 or.
Paradigmas sumergidos y la reinención del desarrollo en el siglo XXI, 16-23 or.
- d) UNCETA, Koldo; *Desarrollo, subdesarrollo, maldesarrollo y posdesarrollo 2009*, 17-24 or.
- e) ZIBECCHI, Raúl eta Pedro TRIGO (2013); *Nuestra América: Nueva época popular, multiétnica y pluricultural Foco en América Latina*, 2. zk., 2013ko apiril-ekaina, 2-7 or.

Laburbildu orri batean egungo testuinguruan dauden aldaketa-prozesuak, goiko irakurgaiei jarraiki.

- Nabigatu web-orri hauetatik:

- a) Future Resources: www.chathamhouse.org/resources/futures
- b) World Economic Forum; Global Risks 2013: <http://www.weforum.org/globalrisks2013>
- c) Alt3ren iragarpenak: XXI. mende nahasia: <http://www.alt3.co.uk>
- d) Mundu-mailako 15 erronkak: www.StateoftheFuture.org

Azaldu labur-labur orri horietan jasota dauden mundu-mailako erronka nagusiak.

2. Gaian

Gai honetan garrantzizkoa da norberak ezagutzak bereganatzeko prozesua ondo burutzea, kontzeptuak behar bezala ulertuta, eta, aldi berean, ahalmen kritikoa izatea haien aurrean. Ildo horretan, iradokizun gisa, bi galdera hauei nork bere erantzuna ematea proposatzen dugu:

- a) Zein dira funtzionamendu eta gaitasun kontzeptuen ezaugarri nagusiak? Zein dira haien arteko desberdintasunak?
- b) Zure ustez, zein dira Nussbaumek egiten dituen ekarpenik garrantzitsuenak? Zein dira bere proposamenari egiten dizkiozun kritika nagusiak?

Egin bi irakurgai hauetako baten edukiaren eskema:

- a) SEN, Amartya (2000); *Desarrollo y libertad*; Planeta. 2. irakurketa
Sarrera. El desarrollo como libertad; 19-28 or.
Bigarren kapitulua; Los fines y los medios del desarrollo; 54-75 or.
- b) NUSSBAUM, Martha (2002); *Las mujeres y el desarrollo humano*. Herder. 3. irakurgaia
Sarrera: El enfoque de las capacidades; 31-44 or.;
I.-IV. kap.: Las capacidades humanas centrales; 110-31 or.

OHAR GARRANTZITSUA ingelesez irakurtzen duzenontzat: Gidaliburu bikain bat dago: Séverine DENEULIN eta Lila SHAHANI (arg.) (2009); *An introduction to the human development and capability approach. Freedom and Agency*; Earthscan/IDRC 2009 Hemendik jaitsi dezakezue: http://www.idrc.ca/es/ev-143029-201-1-DO_TOPIC.html

3. Gaian

Baliabide hauek gomendatzen dizkizuegu, gai honetako edukia zabaltzeko:

- *Revista Humanum*: www.revistahumanum.org. Harpidedun eginez gero, aldizkaria bidaliko dizute. Haren bidez, giza garapenaren ikuspegiak UNDPren baitan izan duen aurrerapenaren jarraipena egin ahal izango duzue.
- *Escuela Virtual del PNUD*: Eskuragarri dauden testu batzuk oso interesgarriak dira, giza garapenaren kontzeptua zabaltzeko, txostenetan jasota dagoen horretatik harantz. Ikusi: <http://www.escuelapnud.org/es/>
- Giza Garapenerako Zentroa: baliabide dokumentalak daude eskuragarri: <http://www.centrodesarrollohumano.org/>

Hiru atari horietan bilaketa arin bat egitea gomendatzen dizugu, horrela, gaian azaldu diren kontzeptu teorikoekin zerikusia duten materialak hautatu ahal izateko.

Alderdi kolektiboa UNDPn

Azter itzazu 2010 eta 2011ko Giza Garapenari buruzko txostenetan alderdi kolektiboari buruz egiten diren ekarpenak (Ikuspegiak bakarrik). Ariketa honetan, bi txosten horiek giza garapenaren alderdi sozial edo kolektiboari buruz jasotzen dituzten puntu nagusiak azaldu behar dituzu: zure ustez, zein dira alderdirik interesgarrienak?

Sar zaitetz UNDPren web-orrian (<http://hdr.undp.org/es/informes/>) eta bila itzazu azken urteetako giza garapenari buruzko txostenak. Begiratu estatuko eta eskualdeetako txostenak, eta ikusi interesgarri iruditzen zaizkizuen horiek.

4. Gaian

Gaitasunen garapenak duen eraginkortasunaren erakusgarri gisa, COMPARTE sareko esperientzia aski interesgarria izan da. Ondoko bi testuetan, zehatz azaltzen da nola erabili duten gaitasunen garapena, garapenerako estrategia alternatiboak bilatzeko tresna gisa. Esperientzia horretako alderdirik interesgarrienak laburtzea oso modu praktikoa izan daiteke ikuspegiaren garrantzia ulertzeko.

- ALBOAN (2013) Una experiencia colectiva de búsqueda de alternativas 2013.
- ALBOAN (2013); COMPARTE. Camino recorrido 2013.

Irakurgai hauek oso erabilgarriak izan daitezke gaitasunen garapenaren arloan areago sakondu nahi duten horientzat:

- BASER, Heather eta Peter MORGAN (2008b); *Capacity Change and Performance* Resume 2008.
- DUBOIS, Alfonso (2008); "El debate sobre el enfoque de las capacidades: las capacidades colectivas". *Araucaria*, 10. lib., 20. zk., 35-63 orr.
- FUKUDA-PARR, S., LOPES, C. eta MALIK, K. (arg.), 2002, *Capacity for Development: New Solutions to Old Problems*. UNDP/Earthscan.
<http://www.capacity.undp.org/index.cfm?module=Library&page=Document&DocumentID=5017>
- RAMALINGAM, Ben eta Harry JONES, Toussainte Reba eta John Young-ekin (2008); *Exploring the science of complexity: Ideas and implications for development and humanitarian efforts*, 2008. Overseas Development Institute, Londres. Hemen: <http://www.odi.org.uk/resources/docs/833.pdf>

5. Gaian

a) Irakurri Costamagnaren saiakera, eta gaiaren oinarritzko dokumentua edo testua erabiliz, eta idatzi tokiko garapenaren eta tokiko giza garapenaren ikuspegi zabalen arteko harremanei buruz. Ahal izanez gero, irakurgai horiekin batera, irakurri Latinoamerikako egileen beste testu batzuk.

COSTAMAGNA, Pablo (2013); Ensayo sobre un diálogo entre el enfoque del Desarrollo Territorial y el Desarrollo Humano Local desde una perspectiva latinoamericana. Hegoa Mintegia, 2013ko urria.

b) Irakurri Cuervoren "Una propuesta de síntesis" artikulua (23-27 or.), eta aztertu oinarritzko dokumentuko edo testuko esparru analitikoko proposamenarekin dituen antzekotasunak.

CUERVO, Luis Mauricio; Teoría del desarrollo 21.0. Piezas para la reinención del concepto. ILPES, CEPAL, Nazio Batuak. Hemen: <http://www.cebem.org/publicaciones.php?seccion=65&ID=2216>

IRAKURGAI OSAGARRIAK

1. Gaian

- ACOSTA, Alberto (2013); *El Buen Vivir. Sumak Kawsay, una oportunidad para imaginar otros mundos*. Icaria-Antrazyt, Bartzelona.

- ALBOAN (2011); *El desarrollo alternativo por el que trabajamos. Aprendizajes desde la experiencia*. ALBOAN, Bilbo, 2011. Hemen: www.alboan.org

- CUERVO, Luis Mauricio; *Teoría del desarrollo 21.0. Piezas para la reinención del concepto*. ILPES, CEPAL, Nazio Batuek. Hemen: Observatorio de la Economía Latinoamericana, 153. zk., 201

<http://www.cebem.org/publicaciones.php?seccion=65&ID=2216>

- DESA (2010); *Estudio Económico y Social Mundial, 2010. Nuevos instrumentos para el desarrollo mundial*. Sinopsis. Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Saila, Nazio Batuek, New York 2010. Hemen:http://www.un.org/es/mdg/summit2010/pdf/overview_sp.pdf

Bertsio osoa hemen:

http://www.un.org/en/development/desa/policy/wess/wess_archive/2010wess_sp.pdf

- STIGLITZ, Joseph E., Amartya SEN eta Jean Paul FITOUSSI (2013); *Medir nuestras vidas. Las limitaciones del PIB como indicador de progreso*. RBA, Bartzelona.

2. Gaian

- DOYAL eta GOUGH, Ian (1993); *Teoría de las necesidades humanas*. Icaria-FUHEM.

- NUSSBAUM, Martha (2002); *Las mujeres y el desarrollo humano*. Herder.

- NUSSBAUM, Martha (2012); *Crear capacidades. Propuestas para el desarrollo humano*. Paidós.

- ROBEYNS, Ingrid (2011); "The Capability Approach", The Stanford Encyclopedia of Philosophy (Summer 2011 Edition), Edward N. Zalta (arg.), URL = <http://plato.stanford.edu/archives/sum2011/entries/capability-approach/>

- SEN, Amartya (2000); *Desarrollo y libertad*. Planeta.

3. Gaian

- DENEULIN, Severine (2006); *The capability approach and the praxis of development*. Houndmills : Palgrave Macmillan, 2006.

- DENEULIN, Séverine eta Nicholas Townsend (2006); "Public Goods, Global Public Goods and the Common Good". *WeD Working Paper 18, Economic and Social Research Council*, University of Bath, 2006ko iraila. Hemen: www.welldev.org.uk/research/workingpaperpdf/wed18.pdf

- NUSSBAUM, Martha (1998); "Capacidades humanas y justicia social". Hemen: Riechmann, Jorge (koord.) (1998); *Necesitar, desear, vivir. Sobre necesidades, desarrollo humano, crecimiento económico y sustentabilidad*. Los Libros de la Catarata, Madril; 43-104 or.

- NUSSBAUM, Martha C. (2007); *Las fronteras de la justicia. Consideraciones sobre la exclusión*. Paidós, Estado y sociedad, 145.

- UNDP (1994), *Informe sobre Desarrollo Humano*, 1994, Garapenari buruzko Nazio Batuen Programa, New York. Hemen eskuragarri: <http://hdr.undp.org/es/informes/mundial/idh1994/>
- UNDP (2010): *Informe sobre Desarrollo Humano* 2010. http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr_2010_es_complete_reprint.pdf
- ROBEYNS, Ingrid (2003); "Sen's Capability Approach and Gender Inequality: Selecting Relevant Capabilities". *Feminist Economics*, 9 (2-3), 2003, 61-92 or.
- TADJBAKHS, Shahrbanou (2008), "Seguridad Humana", hemen: *Redes IDH*, 17. zk., otsaila, hemen eskuragarri: http://hdr.undp.org/en/media/hdinsights_feb2008_sp.pdf

4. Gaian

- BASER, Heather eta Peter MORGAN (2008a); *Capacity, Change and Performance*. Study Report. European Centre for Development Policy Management.
- DENEULIN, Séverine (2006); *The Capability Approach and the Praxis of Development*. Palgrave, MacMillan.
- DENEULIN, Séverine (2011); "The Capability Tradition: A Note on Two Interpretations. From structural adjustment to human development: Impact on poverty and inequality". *A Conference in Honour of Sir Richard Jolly*. Institute of Development Studies, 17-18 November 2011. Hemen: <http://www.ids.ac.uk/events/from-structural-adjustment-to-human-development-impact-on-poverty-and-inequality>
- JONES, Harry (2011); "Taking responsibility for complexity. How implementation can achieve results in the face of complex problems". Working Paper 330. 2011ko ekaina, Overseas Development Institute, Londres. Hemen: <http://www.odi.org.uk/resources/docs/6485.pdf>
- KRZNIC, Roman (2007); "How Change Happens. Interdisciplinary Perspectives for Human Development". OXFAM. Hemen: http://www.oxfam.org.uk/resources/issues/education/downloads/research_change.pdf
- LOPES, C. eta THEISOHN, T., 2003, *Ownership, Leadership and Transformation; Can we do better for Capacity Development?* UNDP/Earthscan. Hemen: <http://www.capacity.undp.org/index.cfm?module=Library&page=Document&DocumentID=5015>
- MORGAN, P. (2006); *The Concept of Capacity*.
- OECD/DAC, 2006, *The Challenge of Capacity Development: Working Towards Good Practice*. (DAC Guidelines and Reference Series, A DAC Reference Document.). <http://www.oecd.org/dataoecd/4/36/36326495.pdf>
- ORTIZ, Alfredo eta Peter TAYLOR (2009); *Learning purposefully in capacity development*. UNESCO/IIEP. 25-41 or.

- WOODHILL, Jim (2008); "How institutions evolve. Shaping behavior". Hemen: <http://www.thebrokeronline.eu/en/Magazine/articles/Shaping-behaviour>
- WOODHILL, Jim (2010a); "Capacity Lives Between Multiple Stakeholders". Hemen: *Capacity development in practice – Dimensions of Capacity*, 25-41 or.
- WOODHILL, Jim (2010b); "Capacities for Institutional Innovation: A Complexity Perspective". *IDS Bulletin*, 41. lib., 3. zk., 2010eko maiatza, 47-59 or.

5. Gaian

- FRASER, Nancy (2008); *Escalas de justicia*. Herder, Bartzelona.
- MADOERY, Oscar (2007); *Otro desarrollo. El cambio desde las ciudades y las regiones*. UNSAM, Argentina.
- RODRÍGUEZ, BERNAL eta Luís Mauricio CUERVO (2012); *Teoría y práctica del desarrollo económico local*.
- UNDP (2009); *Supporting Capacity Development*. The UNDP Approach 2009.
- WOODHILL, Jim (2008); How institutions evolve. Shaping behaviour. <http://www.thebrokeronline.eu/en/Magazine/articles/Shaping-behaviour>
- WOODHILL, Jim (2010a); Capacity Lives Between Multiple Stakeholders. Hemen: *Capacity development in practice – Dimensions of Capacity*, 25-41 or.
- WOODHILL, Jim (2010b); Capacities for Institutional Innovation: A Complexity Perspective. *IDS Bulletin*, 41. lib., 3. zk., 2010eko maiatza, 47-59 or.